

Printzipio nagusiak

1. Hego Euskal Herriko tokiko moneta osagarri euskaldun, ekologiko eta solidarioak HEKO du izena.
2. HEKO lurralde pilotuetan sortuko da, eta pixkanaka zabalduko da Hego Euskal Herrian zehar. Bere asmoa da Ipar Euskal Herriko Euskoarekin bat egitea.
3. Euro bat HEKO baten truke aldatuko da, gasturik gabe.
4. Gizartearen Moneta elkarteak kudeatuko du Hego Euskal Herriko tokiko moneta.
5. Gizartearen Monetaren kide bilakatzen den pertsona fisiko zein juridiko orok funtzionamendu arau hauek onartuko ditu.
6. Funtzionamendu arau hauek betetzen dira, bai paperezko tokiko monetaren kasuan, bai numerikoaren kasuan; salbu numerikoaren kasuan, tokiko moneta numerikoa erabiltzeko Baldintza Orokorrek kontrako neurriak finkatzen baldin badute.
7. Profesionalak pertsona juridikoak dira, edozein izanik ere beren izaera: hurbileko saltokiak (ostatuak, tabernak, jatetxeak, egunkari saltegiak, janari saltegiak, ile apaindegiak, farmaziak, etab.), enpresak, autonomoak (medikuak, dentistak, iturginak, jostunak, tindatzaileak, etab.), ekoizleak (laborariak, arrantzaileak, artisauak, etab.), elkarteak (aisialdiak, kirolak, kultura, euskara, etab.), erakunde publikoak eta beren egiturak: mankomunitate, partzuergo, fundazio...
8. Onespenez batzordea: bere funtzio profesionalak aurkeztutako onespenez-eskaeren dosierak aztertzea da eta bazkide izateko onespenez ematea ala ez ematea. Gizartearen Moneta elkarteak izatera ezberdineko kide diren ordezkariak osatzen dute: partikularrak, eta profesionalak (enpresa eta elkarteak).
9. Tokiko monetaren erabiltzaile izateko (partikularra zein profesionala) Gizartearen Moneta elkartearen kide izan behar da. Gizartearen Monetaren kide diren pertsonak eta profesionalak soilik erabili ahal izango dute HEKOa.
10. Edozein pertsona partikular eta edozein pertsona juridiko Gizartearen Moneta elkarteak kide egin daiteke, erabiltzaile gisa. Aldiz, tokiko monetarekin ordain daitezkeen profesional bilakatu nahi duen pertsona juridiko orok egoitza soziala Euskal Herrian izan behar du eta Gizartearen Monetaren onspenez batzordeak onartua izan behar da. Onspenez Batzordeak egon daitezkeen salbuespenak aztertu eta onartuko ditu bi herenen aldeko bozkekin.
11. Partikularrek ezin dituzte tokiko monetak eurotan trukatu.
12. Profesionalak tokiko moneta eurotan truka ditzakete, aldatu zenbatekoaren % 5eko komisio gastuak ordainduz. Adibidez, profesionalak 95 euro eskuratuko dituzte 100 tokiko monetaren truke. Gizartearen Monetak faktura bat egingo die merkataritza gastuengatik. Komisio horren helburua da profesionalak beren tokiko monetak erabiltzera sustatzea —hemengo hornitzaileak hautatuz—, eurotan trukatu ordez. Mekanismo horrek indar gehiago ematen dio tokiko monetak duen eraginari: ekonomia berriz hona ekartzen laguntzen du.
13. HEKOz ordaindu zenbatekoen mugatzea:
 - Hilabetean 500 HEKO baino gehiago ordaintzen baldin badira, HEKO ordaindu kantitateak muga daitezke, nahi izanez gero.
 - Arau horiek enpresari arazo larriak eragiten baldin badizkiote, enpresak dispentsa eskaera bat aurkeztu ahal dio Onspenez Batzordeari (erregularki biltzen da), eskatu dispentsaren

arrazoiak, moldeak eta iraupena zehaztuz. Dispentsa hori eskatzeko posibilitatea onespenez eskaera dosierrean aipatua da. Dispentsa eskaera onespenez eskaera dosierrearekin batera aurkeztu daiteke. Profesionala behartua da izan duen dispentsa bere enpresan jasotzera (moldeak eta iraupena).

14. Kontuen, gizarte kotizazioen eta zerga deklarazioen alorrean, profesionalak euroak baizik ez dituzte deklaratzeko, HEKO ordaintzeko tresna bat baizik ez baita, txekak, jabetxe txekak, opor txekak... bezala.
15. Gidaritza Batzordeak finkatuko du urteko bazkide kuota.
16. Trukatzeari dagokionez, HEKO numerikoak eta paperezko HEKO arau berak betetzen dituzte.
17. HEKO kontuetan ezin da zulorik izan.
18. Partikularrek beren HEKO kontu numerikotik paperezko HEKO ateratzen ahal dituzte baina ezin dute beren HEKO numeriko kontuan paperezko HEKO sartu.
19. Profesionalak beren HEKO kontu numerikotik paperezko HEKO ateratzen ahal dituzte eta beren HEKO kontu numerikoan paperezko HEKO sar ditzakete.
20. HEKO kontu numeriko bat irekitzen duten profesionalak HEKO txartelaren edo aplikazioaren bidez ordainduak izateko behar duten aplikazio informatika jasoko dute.

Erreserba funtsak

21. Indarrean diren araudiei zorrozkiz jarraitzeko, bildu euroak banku kontu batean atxikitzen dira eta erreserba funtsa osatzen dute.
22. Erreserba funts hori finantza erakunde solidario eta etiko batean ezarria da. Bermatzen du erabiltzen ari diren HEKO guztiak eurotan noiznahi trukatzeko ahal direla.

Profesionalen onespena

23. Tokiko moneta euskal moneta ekologikoa, euskaldun eta solidarioa izanez, praktika ekonomikoek beste norabide bat ematen dien tresna izan behar da. Ekonomia berriz hona ekartzen laguntzen duen tresna da, beren egoitza soziala Euskal Herrian duten profesionalen artean baizik ez baita baliatzen ahal. Hemengo enplegua, enpresen arteko elkartasuna, lurraldearekin duten lotura, garraioei lotu berotegi efektuko gasen isurketen murriztea sustatzen ditu. Erreserba funts hori finantza erakunde solidario eta etiko batean ezarria da. Bermatzen du erabiltzen ari diren HEKO guztiak eurotan noiznahi trukatzeko ahal direla.
24. Tokiko monetaren baloreetan eragiteko eta bere efektua indartzeko, bazkide den profesional eta elkarte bakoitzak baloreen gaineko bi desafio hartu beharko ditu bere bazkidetzaren lehen bi urtetan bete beharko dituenak. Horretarako baloreekin lotutako desafioen zerrenda eskainiko zaio enpresa edo elkarteari eta zerrenda horretatik aukeratu beharko ditu beteko dituen desafioak. Lehen desafioa ekonomia berriz hona ekartzeko helburuaren alorrekoa da. Bazkideak bertako hornitzaileak topatu, bertako ekoizleen produktuak kontsumitu eta bertako ekoizle-hornitzaile-saltzaile-bezero sareak indartzeko neurriak hartuko ditu. Bigarren desafioa euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko konpromisoarekin lotutakoa da. Bazkideak euskararen presentzia edo erabilera indartzeko neurriak hartuko ditu. Hirugarren desafioa ingurumenaren eta naturaren zaintzaren alorrekoa da. Profesional edo elkarteak bere enpresan hondakinen bilketa eta kudeaketarekin lotutako neurriak hartuko ditu edo argindarraren edota uraren kontsumoarekin eta kudeaketarekin lotutako neurriak hartuko ditu.

Ekonomia zirkularraren logikan aritzeko neurriak hartuko ditu.

Laugarren desafioa justizia sozialaren arlokoa da. Profesionalak eta elkarteak zaintza lanak errazteko, bere enpresan kontziliaziorako neurriak aztertuko ditu, formazioak eskaini parekidetasun arloan edo gaiarekin lotutako bestelako neurriren bat hartuko du.

25. Profesionalak HEKOren Balioen Kartaren irizpideak errespetatu behar ditu, desafioak betetzeko konpromisoa hartu eta bazkide saria ordaindu.
26. Profesionalei laguntza: desafioak betetzeari eta ezartzeari dagokionez, Gizartearen Monetak, beste elkarte eta egitura batzuekin elkarlanean, profesionalak lagunduko ditu hemengo hornitzaileak aurkitzen, bere hornitzaileak HEKO onartzen dituen sarean sarrarazten, langileak formatzen, eta desafioak betetzeko aholkularitza eskaintzen.
27. Egiaztatzea: lehen desafioaren betetzea urte baten buruan egiaztatuko da, profesionalak Gizartearen Monetarekin edo beste elkarte edo egiturarekin bilduz. Bigarren desafioaren betetzea bi urteren buruan egiaztatuko da, profesionalaren onespena berritzean. Eta horrela, urtez-urteko desafioen jarraipena egingo da.
28. Onespen Batzordeak erabakitzen ahal du, bozen bi hereneko gehiengoz, Araudi Nagusiaren irizpideen arabera baztertua litzatekeen baina benetako balio sozial edo ekologikoa duen profesional bat integratzea.
29. Beharrezkoa da profesionalak urteko Biltzar Nagusietan parte har dezaten (Biltzar Nagusiak hilabete bat lehenago jakinaraziak dira), bereziki Eragileen Batzordean dagoen Profesionalen Kolegioko beren ordezkarien izendatzeko; hain zuzen, kolegio horrek Onespen Batzordearen osatzean parte hartu behar du
30. Komunikazioa: paperezko euskarrian dauden tresna asko (aurkitegiak, sarearen kide dela jakinarazten duten eta saltokien sarreran jarri ahal diren pegatinak, desafioak aipatzen dituzten eta enpresan gordetzen ahal diren agiriak, etab.) eta Internetekoak (profesional bakoitzaren fitxa biltzen duen webgune berezi bat, bilaketa tresna, etab.) proposatuko zaizkie profesionalei.

Ekarpen soziala

31. Kide bilakatzean, kide partikular bakoitzak lagundu nahi duen elkarte bat izendatzen ahal du. Halaber, lagundu nahi duen elkartea noiznahi alda dezake.
32. Urtean behin, kide horrek trukatu dituen diruen % 3ren ekarpena egingo dio elkarte horri, HEKOz, Gizartearen Monetak ordainduko du. Kideak noizbait beste elkarte bat laguntzea erabakitzen baldin badu, emaitzaren kalkuluaren egunean (urtean behin) izendaturik dagoen elkarteak jasoko du urte osoko ekarpena.
33. Onespen Batzordeak hautatzen ditu %3 hori eskuratzen ahal dituzten elkarteak eta beste erakundeak (denak irabazteko xederik gabekoak). Elkarte horiek Euskal Monetaren kide bilakatu behar dute, eta beharrezkoa da HEKOaren 30 erabiltzailek, gutxienez, %3 horren hartzaile gisa izenda ditzaten.
Elkarte horiek HEKOz ordainduak izatea onartu behar dute baina, edozein profesionalak bezala, HEKOz onartzen dituzten kopurua mugatu ahal dute, berriz erabili ahal izateko moduan, eurotara trukatzera (%5eko gastuak ordainduz) behartuak izan gabe.
34. HEKO eurotara trukatzeko profesionalak ordaintzen duten % 5eko komisioak finantzatzeko du ekarpen soziala.

35. Altxortegian, HEKO eurotara trukatzeari ordaindutako % 5eko komisioak sortutako sarreraren eta elkartearen egindako ekarpen sozialaren ordainketaren artean, oreka bat bada; Gizartearen Monetaren aurrekontuak ziurtatuko du oreka hori.
36. Enpresek bezala, elkarrekin desafiak bete behar dituzte.
37. Enpresek bezala, beharrezkoa da kide diren elkarrekin urteko Biltzar Nagusietan parte har dezaten (Biltzar Nagusiak hilabete bat lehenago jakinaraziko dira), bereziki Eragileen Batzordean dagoen Elkarrekin Kolegioko beren ordezkariak izendatzeko.

Erreserba funtsak

38. Profesional batzuk hautatuak izango dira —jendea profesional horien egoitzara joateko irisgarritasunaren arabera—, HEKO sareko trukegune izateko. Profesionalak alde batean izango du bere saltzaile kutxa, bere bezeroek ordaindu HEKO hartzeko, eta beste aldean elkarrekin kutxa, Gizartearen Monetak horniturik, trukatzekoak diren HEKOak jasotzeko. Transakzio bakoitzean, trukeguneak partikularren edo profesionalaren kide-txartela eskatu beharko du.
39. Gizartearen Monetak trukegune bakoitzari Fakturazio orriak emango dizkio (elkarrekin izenburuarekin), HEKO eurotara trukatzera doan profesionalak % 5eko komisioaren gaineko faktura bat emateko (elkarrekin izenean).
40. Trukegune bakoitzak aplikazio informatiko batera sartzeko aukera izango du eragiketa horiek erregistratzeko.